

B

BARREN

Arriaga: lehena eta oraina

TOKIKOM



Euskara ikasi eta landu



FERNAN

EHerrian bizi naizelako eta AEKk egindako lana asko estimatzen dudalako



EKAITZ

2. perfila atea nahi dut lenerako



ELENA

Bi urte darrauztat AEKn eta oso gustora, nire asmoa euskara ikasten jarraitzea da, nire euskara hobetzeko.



AEK EUSKALTEGIAN

Matrikula erdia eta bekak udalari esker • Izena eman 25a arte
Plaza Txikia, 3 • Tel.: 607 601 423 • elgoibar@aek.org

beinkE
elgoibarko bertso eskola



Ikasturte berriarekin batera. bueltan!

Bertsotan ikasi edota egin nahi baduzu. eman ezazu izena

Beinke bertso-eskolan!

Bertsolarien bisitak. irteerak. sormena landu. ekintza bereziak...

Zeinentzat: nahi duenarentzat!

Izena emateko: IRAILAREN 25era arte. www.elgoibarkoizarra.com webgunean. atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com-en edota Elgoibarko Izarran.

Prezioa: 25€ urte osoan!

Asialdia



XX. mendeko elgoibartar garrantzitsuenetako bat

Joan zen abuztuaren 5ean, elgoibartarrek oporrak hasi berri zituztenean, hil zen 94 urte zituela Ana Etxeberria Agirregomezkorta, señoirita Anita izenez ezagunagoa. Eibarren jaio bazen ere, bere izena letra larriz idatzi beharreko elgoibartarra.

Aparteko emakume hau kasu berezia eta nekez errepika ezina izan da gure herrian iragan mendean, berrogeita hamar urte baino gehiagoan hezkuntzan, imagina gaitzkeen hezkuntza emankor eta balio anitzenekoan, egindako lanagatik.

XX. mende erdialdera, akademia bat sortu zuen Elgoibarren, beste elgoibartar batekin batera, eta denbora gutxira bere gain hartu zuen ardura guztia. Irakasgai guztietan hezi eta trebatzen zituen ikasleak, eta kasurik gehienetan, erabat pertsonalizatua izaten zen bere irakaskakuntza sistema.

50eko hamarkadan Elgoibarrek Eskola Publiko on bat eta puntako kolegioa zituen (Pilar ikastetxea), baina irakaskuntza aratuak zituen mugak emakume izugarri honi esker gainditu genituen.

Elgoibarko lehenengo eskola mistoa sortu zuen, eta bere geletan ia hamar urteko "gap"-a zuten ikasleak zeuden. Elgoibartar askok señoirita Anitari zor diogu profesionalki gaur garen zati bat; zenbaitek hari esker lortu zuten Unibertsitatera sartzea.

Irakasle gisa, Lanbide Heziketako Eskolan eman zituen azkeneko lau urteak, eta bera izan zen gaur egun Meka ikastetxeak eskaintzen duen eta horrenbesteko estimazioa duen administrazio saila abiatu zuena.

1985ko maiatzaren 5ean, erretiroa hartzen zuela-eta, omenaldia egin genion bere ikasle izan ginenok. Orain, berriz, Elgoibarko herriak esker oneko aitortza bat zor dio, era horretan emakume, irakasle, gizarte ekintzaile eta langile nekaezin honek eredutzat irauin dezan denon oroimenan.



Jesus Bilbao

“Elgoibartar askok señoirita Anitari zor diogu profesionalki gaur garen zati bat”

I. URTEURRENA

LEIRE

UGARTEBURU GABILONDO

*Joan da urtea
baina ez
penaren nekea
hain da handia
maitea
laga duzun hutsunea*

Etxekoak


2011 - 08 - 18



BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Aina Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Nork erre nahi ditu zaborrak?

Mikel Peruarena kazetariak ikerketa egin eta errauskailuen haritik tiratu du, eta politika eta enpresa munduaren arteko sare korapilatsua osatu. Jon Garmendia, Sendagorta, Josu Jon Imaz eta Koplowitzarrak beste batzuren artean, zementugile, energia eta zaborraren bueltan nahastuta ageri dira.

Energia berriztagarriak fosiletatik ez datozenak dira. Zabor organikoek kontsiderazio hau daukate, beraz, zaborrak erretzeari berriztagarri deitzen diote. Halere, tranpa honetan gurpilak, plastikoak, kokea eta beste hainbat hondakin erretzen dituzte.

Europako Zuzentarauak argi eta garbi dio zabor organikoarekin konposta egitea dela onena; erretzea (birbaloizatzea) baino hobea.

Politikari hauen enpresa pribatuek ez diote Europak ezarritako Zuzentarauari kasurik egiten, eta tematuta daude zaborrak erretzen. Normala, negozio borobila asmatu baidute, lehengaietan gutxiago gastatu, berriztagarri dagozkien dirulaguntzak jaso, zaborrak desagertaraztearen dirua jaso eta elektrizitatea saltzeko orduan preferentzia edukitzea da zaborrak erreaz lortzen dutena. Bost axola zaizkie horrek sortzen dituen osasun eta ingurumen arazoak.

Informazio osoa Elgoibarren.net-eko Okil Beltzen blogean aurkituko duzue, interesik baldin badaukazue.

Okil beltzak ☞

Eskerrik asko

Eskerrak eman nahi genizkieke Elgoibar-ko Udalari eta Ongizate Sailari, bederatzite hauetan Errusiarekin bat egiten dugun Haurren Behin-Behineko Harrera Programa aurrera eraman ahal izateko eskaini diguten laguntza eta babesagatik.

I. A. ☞

Elektran kaleratzerik ez!

Elgoibarren, festetako Baserritar Eguna. Oporrak gozatzen hasia. Lantegiko burofax bat. Irailaren 13tik aurrera (oporrak bukatuta), langabezira.

Bi eskumuturretatik operatu ostean, Auzitegi Medikoak bidali ninduen lanera ekainaren 5ean. Abuztuaren 8an Fraternidad-Mu-presako medikuak aztertu ondoren: *Próxima revisión antes del 7 de Noviembre. Apto con limitaciones. Observación: Evitar en lo posible, la puñopresion y flexión forzadas contra resistencia de los dedos de las manos, de forma continuada.* Esaldi hori ulertzeko zaila omen ta beste mediku(?) bati erakutsi ostean erabakitzen dute ez dudala lekuri azken 14 urte eta erdi eman ditudan lantegian: Elektran.

Argi dago gaur egun jasaten dugun egoera sozio-politikoak horretarako eta gehiagorako aukera ematen diela Euskal Herrietako langilearen kontra jotzeko. Nabarra Osoak bere burujabetza berreskuratu eta Piriniotako Zuzenbidea oinarri harturik benetako justizia soziala ezarri ezean, gauzak berdinean jarraituko dute.

Bitartean, langileen arteko elkartasun ezak, beldurrak, koldarkeriak, norberak bere zilborrari begiratzearekin nahikoa duelako... bere burua besterik ez du kaltetzen.


Horregatik datorren irailaren 26an ez dut greba egiterik izango.

Nestor Fuente Alberdi ☞



Maialen Arnedo

Oporraldiaren ostean, bagatoz berriro ere zozoa eta belea geure berbak dantzan jartzera! Gai askoren inguruan mintzatu gara orain artean baina, bada bat bereziki kezkatzen gaituena eta maiz jorratu duguna: euskara. Hortaz, hari berari tiraka nator-kizu oraingoan ere, Joanes. Gure hiz-



Joanes Rodriguez

kuntzaren egoera bere onenean ez dagoen honetan, askotan hausnartu izan dut honen inguruan. Jakin badakigu azken urteetan euskararen aldeko lan ikaragarria egin dela, baina, ezin ditugu ahaztu oraindik ere identifika ditzakegun faktore kaltegarriak. Hau irakurri eta askori, erakunde publikoak, alderdi politikoak... etorriko zaizkie burura. Eta horrek badu arrazoirik, hauek eragina izan baitute euskararen egoeraren bilakaeran. Baina betaurrekoak aldatu behar ditugula us-te dut nik. Izan ere, ezin gara beti amaigabeko zirkulu batean biraka ibili. Autokritika eginez, geure burutik hasi eta geure inguruari erreparatu behar diogu. Benetan, euskara erakunde eta alderdi politikoen esku al dago? Eragina ezin ukatuzkoa da noski, eta honi gainera, aurreiritziek eta ideologiak daukaten pisua gehitu behar zaie.

Arrazoa daukazu, Maialen, eta arrazoa daukazunean, onartu egin behar da. Betaurrekoak aldatzeko garai bat bizitzen ari gara, eta horretaz oso kontziente ez bagara ere, euskara beste gai asko bezala (hizkuntzen kasuan, oraindik gehiago, ahoan dauzkagulako) eztabai-dagai eta transbertsal izatera pasatu beharko dira. Uda honetan auzolandegi batean izan naiz Lekeitio, hango zaharren egoitzan. Estatu Espainiar osotik etorritako gazteak bildu dira, baita Euskal Herri-tik animatu garenak ere. Esperientzia interesgarria eta hunkigarria izan da bi arrazoi nagusirengatik: jarrera eta itxaropena.


“Gu euskaldunak garen bitartean, gure ondorengoak ere izango dira”

Jarrera: Espainiar jatorriko hamabost gazte, Lekeitiko zaharren egoitza batean (pentsatu nolako euskara darabilten Lekitxon, *batua-batua-zerrau*) euskarazko hitzak ikasten, euskal kulturaz ikasten, euskaldun eta euskaradun izatea zer den sentitzen, eta, gainera, lan sozial boluntario baten markoan. Itxaropena: Askotan, beti azpimarratu dudana bezala, daukazuna beste ikuspuntu batetik begiratzean (betaurreko aldaketa agian), konturatzen zarelako oinarritzko eta beharrezko behar eta sentipenak ez direla desagertzen. Euskaradun izatea ohore bat da. Gu euskaradunak garen bitartean, gure ondorengoak ere izango dira. Arazoa “Euskaradunizazioan” dagoela esango nuke, bertan nahasten baitira lehenago aipatu dituzun faktore guztiak Maialen: Politika, nahia, beharra...

Hala ere, eta gogoeta guztien gainera, egi bat bada bakarra eta absolutua, eta borobila (Amen!): Egin dezakeenak entzuten du, nahia daukanak ahalegina egiten du, beharra daukanak, ikasten du; sentitzen duenak, bizi egiten du. Hemen, Txinan, Etiopian eta baita Murztzian ere. #euskarazbizi.

“Hizkuntzak ez du ideologiarik, hiztunak dira ideologiaren bat dutenak”

Aipatutakoaren harira, hauxe dio Jon Sudupek artikulu batean: *“Hizkuntza elkar ulertzeko da, eta ez, ideologia jakin bat dela medio, hiztunak banatzeko. Hizkuntzak ez du ideologiarik, hiztunak dira ideologiaren bat dutenak. Euskara transbertsala da, eta pentsaera guztiak zeharkatzen ditu.”* Beraz, babes publikoa oso garrantzitsua den arren, hau ez da nahikoa. Alferrikakoak izango dira martxan jarritako hizkuntza politikak hiztunok, geure aldetik, ezer egiten ez badugu. Euskaldunon esku dago geure hizkuntza!




I. URTEURRENA

JUAN MARI MUGUERZA ALDAREGOIA

2011ko irailaren 21ean hil zen, 78 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 22, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.

Ez zaitugu ahaztuko



Ikastolako aparkalekua erabiltzeko prest dago

34 autorentzako lekua egokitu dute



Amaitu dituzte Ikastola pareko aparkalekuko obrak, eta dagoeneko erabiltzeko prest dago. Lehen hamabost ibilgailu ingururentzako lekua zegoen, eta orain, 34 sartzan dira. Era berean, urriaren amaiera alderako amaituko dituzte Iñigez Karkizao kaleko obrak, eta, horren ostean, Pedro Muguruza eta Gabriel Krutzelaegi kaleen noranzkoak aldatuko dituztela aurreratu dute Udal arduradunek.

IMH bisitatu du Iñigo Urkullu EAJko lehendakariak



Iñigo Urkullu EAJren lehendakariak IMHn izan zen martitzenean eta ikastetxeko arduradunak zoriondu zitueni, Txandakako Ingeniaritzak estatuko hezkuntza sisteman lortu duen ofizialtasunagatik, eta EHU-n sartzeagatik. Era berean, Lanbide Heziketarekiko eta Txandakako Ingeniaritzarekiko konpromisoa adierazi zuen. Elgoibarrera egin zuen bisitan, bestalde, gure herriko erreminta makinaren esparruko ordezkarekin hitz egin zuen Urkulluk, eta ondoren, herria bisitatu zuen. Jardunaldia bukatzeko, alderdiko afiliatu eta zaleekin batu zen Batzokian.

Herritarren parte-hartzea sustatzeko lehen saioa irailaren 20an izango da

Herritarren parte-hartzea sustatu nahi du Elgoibarko Udalak, herritarrek eguneroko erabakietan parte hartzeko erraztasun handiagoa izan dezaten. Elgoibartarren eta Udalaren arteko harremana sustatu ahal izateko, parte-hartzea arautu nahi dute, eta horretarako trebakuntza saioak antolatu dituzte Aztiker enpresarekin. Lehenengoa irailaren 20an izango da, Kultur Etxean, 18:30ean hasita, eta bigarrenkoa, hilaren 27an. Saio irekiak dira, eta ez da aurrez izena eman behar. Besteak beste, parte-hartzeak izan beharko lituzkeen ezaugarri ideologikoak eta teknikoak landuko dituzte saioetan, eta parte-hartzearen indarguneak eta ahulguneak nabarmenduko dituzte. Trebakuntzarako bi saio horien ostean, urrian eta azaroan saio gehiago izango dira.

Herritarren parte-hartzea arautzea Legealdi Planean jasotako helburuetako bat dela gogoratu zuen Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak, eta, herritarren eta Udalaren arteko harremanak araututako esparru batean gauzatzen badira eraginkorragoak izango direla uste du.

Martxan da Elgoibar eta Ermua arteko tranbia zerbitzua

Euskotrenek Elgoibarrera iristeko zerbitzuak indartu ditu, eta dagoeneko martxan da Elgoibar eta Ermua arteko tranbia. Aurrerantzean, beraz, ordu erdiro irtengo dira trenak Eibarrerantz. Gerora, 15 minutuko maiztasuna jartzeko asmoa dute.

Laugarren mailako euskara ikastaroa Udal Euskaltegian

Debabe Udal Euskaltegiak HABEren laugarren mailako euskara ikastaroa antolatu du aurten ere. Zenbait lanetan edota bestelako egoeretan hirugarren maila edo EGA maila motz geratzen da, eta hortik gorako prestakuntza behar izaten da. Hain zuzen, Europako Markoaren C2 maila, edota horren baliokidea den HABEren laugarren maila, hutsune hori betetzera dator. Informazio gehiagorako Udal Euskaltegira jo daiteke: (943 742 731).

Izena **Carlos Agirre**



Carlos Agirre Elgoibarko parrokoa izandakoa hil zen astelehenean Donostian, 84 urte zituela. 1971n iritsi zen Elgoibarrera, eta hamabost urtez izan zen San Bartolome parrokiako erretorea. Urte haietan Parrokiako lokaletan zegoen Ikastola, eta ekainean omenaldi txiki bat egin zioten Ikastolaren 50. urteurrenaren harira. Hona iritsi aurretik, Donostiako Antiguako elizan, Tolosan eta Hernaniko San Jose Obrero elizan ere egon zen erretore. Elgoibartik Donostiako Gotzaitegira joan zen, eta han egin ditu bere bizitzako azken urteak.

Zenbakia **53.125**

Domekan bukatu zen Mintxetako aire libreko igerilekuetako denboraldia, eta aurten, 53.125 erabiltzaile ibili dira guztira, iaz baino hamar mila erabiltzaile inguru gehiago, alegia. Egunik jendetsuenak uztailearen 17a eta 18a izan ziren, (1.800 eta 1.900 erabiltzaile, hurrenez hurren). Kirol Patronatuko arduradunak oso gustura daude aurtengo bainu denboraldiarekin eta balorazio positiboa egin dute. Hala ere, 2009a izan da erabiltzaile gehien izan dituen denboraldia, 55.342 erabiltzaileekin.

Irudia **Ikasturte hasiera**

Irailaren 6an hasi zuten ikasturtea Elgoibarko eta Mendaroko neska-mutilek. Azken urteotako ohiturari jarraituz, trikiti doinuek girotuta egin zuten eskolarako bidea Elgoibarren, Oin Alai ekimenari esker. Momentuz, 55 umek eman dute izena egitasmoan, eta haiei eskolaraino laguntzeko hogeit hamar boluntario ari dira lanean. Santa Anako geltokia berreskuratu dutela jakinarazi dute Udaleko arduradunek, baina, aldiz, Herri Eskolara joateko ibilbidean, Melitonetik zetorren adarra bertan behera laga dutela azaldu dute, boluntario faltagatik. izena emateko epea zabalik dagoela gogorarazi dute arduradunek, eta egitasmoa sustatzeko, besteak beste, erosketa bonoak zozketatuko dituzte, boluntarioen artean.



Mendaroko euskaltegian izena emateko epea zabalik

lazko esperientzia ikusita, aurten ere euskara ikasteko ikastaroa antolatuko du Mendaroko Udalak AEKrekin elkarlanean, eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Interesatuak Mendaroko Erregistroan eman dezakete izena, edota erregistroa@mendaro.net posta elektronikora idatzita.

Posta bidezko botoa

Urriaren 21eko hauteskundeetan posta bidez bozkatu nahi duenak irailaren 22ra arte dauka Correosen eskabidea egiteko aukera. Horren harira, EAJK intereseko telefonoak jarri ditu herritarren eskura: Elgoibarren, 675 71 84 66 edo 943 530 530 eta Mendaron, 689 69 48 57 edo 656 41 03 87.

Aitor Osorori egokitu zaio Sallobenteko errifaren saria

Sallobenteko jaietan zozketatutako errifak badu jabea: Aitor Osoro. Txahala edo 1.205 euroko txekoa zeuzkan aukeran, eta dirua aukeratu du.



San Antolin jaietako zozketa

San Antolin jaietan bi sari zozketatu dituzte: Lehenengoa: bi laguntzako bidaia Kanariar Uhartetara. Zenbaki irabazlea: 3167 (ordezkoa, 1638). Bigarren saria, berriz, janariz eta edariz beteriko karretila izan da. Zenbaki irabazlea: 1550 (ordezkoa, 3707).



'IRON MAIDER'

Milaka lagun izan dira abuztuan Londresko Olinpiar jokoetan, eta elgoibartarren presentzia ere, ez da edonolokoa izan. Rementeria familiakoak tropelean joan dira Maider Unda borrokalariari animoak eta babesa ematera, eta olettarrak adina borroka egin zuten eurak harmailetatik. Kamiseta berdea soinean jantzita, *Iron Maider* izan da euren borroka ohiua, eta urrutira iritsi da garrasi horren ohiartzuna. Maider Undaren brontzezko dominarekin hunkituta itzuli dira etxera.

Ainhoa Andonegi

Milaka eta milaka lagunek aukeratu dute aurten Londres oporretan joateko. Izan ere, hiri erakargarria izateaz gain, Olinpiar Jokoak egin dira aurten Londresen, eta are erakargarriagoa bilakatu da Britania Handiko hiriburua uda honetan. Hainbeste turisten artean elgoibartarrak ere izan dira, eta horien artean Olinpiar Jokoak oso modu berezian bizi izan dituen familia bat aurkitu dugu: Rementeria familia.

Gurasoak eta zazpi anai-arreba dira guztira rementeriatarrak: Ion, Agurtzane, Alazne, Maite, Lorea, Aitor eta Andoni. Kirola gustuko dute, eta abenturazaleak ere badira, baina denak batera Olinpiar Jokoetara joateko arrazoa beste bat izan da. Maider Unda borrokalaria Aitorren neskalaguna da, eta hura

animatzera joan ziren. Zazpi anai arrebetatik sei joan ziren Londresera, bakoitza bere bikotekide eta seme-alabekin. Hamalau lagun guztira. Agurtzane Elgoibarren geratu zen gurasoekin.

Pentsatu eta egin

Andoni zegoen, bereziki, Olinpiar Jokoetara joateko "berotuta", azken batean Londres "gertu" dagoelako. Hasieran, baina, ez zegoen kirol probetarako sarrerak erosteko aukerarik, eta behin hara joatekotan, Maider Unda jokoan ikustera joan nahi zuten. Gutxien espero zutenean sarrerak jarri zituzten salgai, eta lankide batek animatuta, sarrerak erosi zituen Maitek. Zailena eginda zegoen. Andonik baietz esan zuen, jakina, eta gainerako

anai-arrebak ere bata bestearen segidan gehitu ziren abenturara. Hegaldi merke bat lortu, etxe bat alokatu eta halaxe abiatu ziren rementeriatarrak Londresera. "Domina irabaztera goaz", esan zuen Maitek abiatu aurretik, hala izango zela sinistuta zegoen-eta. Eta halaxe izan zen.

Iron Maider

Abuztuaren 9a gogoan gordeko dute rementeriatarrek. *Iron Maider* irakur zitekeen kamiseta berdea jantzita joan zen rementeriatarren tropela Excel kirolgunera, Londreseko Olinpiar Jokoetarako sortu duten kirol gunerik handienara, hain zuzen ere. Familia handia osatzen dute rementeriatarrek, bai zenbakian eta baita tamainan ere,

eta, ez ziren oharkabeen pasatu Londresen elgoibartarrak. Andoniri bururatu zitzaion *Iron Maiden* lema. Iron Maiden talde britaniarra gogoko du Andonik, eta hizki bat soilik aldatuta egin zuen hitz jokoak. Hasieran txantxetan erabiltzen zuten etxe-koen artean, baina Maider Unda animatzeko kamisetak egitea erabaki zutenean ez zuten zalantzarik eduki: *Iron Maiden* zen borroka garrasia. “Bete-beteen asmatu genuen”, adierazi du Andonik berak. 50 kamiseta egin zituzten, eta beste bi elgoibartarrek ere jantzi zuten. Zigor Diez eta Roberto De Las Heras ere Maider Unda animatzen izan ziren, baina goizeko saioan soilik, arratsaldean futbola ikustera joateko sarrerak erosita zituztelako.

Kamiseta gain, txapela eta ikurriña handi batek osatzen zuten rementeriatarren uniformea. “Jende pila batek geratu gintuen kalean, eta polizia batek ere argazkia atera zuen gurekin”, gogoratu du Maitek irribartsu. Jendeak kalean geratu egiten zituen ikurriña nongoa zen eta ea nor animatzera zihoazen galdetzeko. Harro esaten zuten Maider Unda animatzera joan zirela: “Denok ginen Maider”, irten zaio Maiteri barren-barrenetik. Alaitasuna nabari da bere hitzetan. Eta oraindik onena iristear zegoen.

Aupa, Maider, aupa zu, hoberena zara zu, oihukatzen zioten harmailatik. Gozatu beste sufritu zuten rementeriatarrek Maider Undaren borrokaldiak ikusten. “Sekulako tentsioa izan genuen”, aitortu dute Maitek eta Andonik, eta Maiderrek bronzeko domina irabaztearekin bat, tentsioa emozio bilakatu zen. “Gogoratze hutsare-



kin oilo narrua jartzen zait oraindik”, aitortu du Maitek, eta besoa erakutsi dio kazetariari hala dela egiaztatzeko. Egia da, eta emozioa transmititzen dute Maiteren hi-

“Sekulako esperientzia izan da, edonori gomendatzeko modukoa”

tzek. Era berean sufritu zuten etxetik Agurtzanek eta gurasoek ere: “Telebistatik begia kendu ere ez zuten egin!”.

Ospatzeko unea iritsi zen garaipenaren ostean, baina nekea zen nagusi: “Ordura arte tentsioa izan zena neke bihurtu zen gero, eta ez geneukan ospakizunetarako indarririk”. Gainera, medioek bahituta zuten

Maider Unda, eta bi egun pasatu ziren Maiderrekin egotea lortu zuten arte. Lasailasai irten ziren denak batera Londres eza-gutzera. Britania Handitik bueltan, Oletan, bere jaioterrian egin zioten omenaldia Maider Undari, eta hantxe izan ziren rementeriatarrak ere.

Borroka, kirol minoritarioa

Euskal Herrian ez dauka jarraitzaile askorik borrokak. Rementeriatarrak Maider Undari esker hurbildu dira kirol honetara, eta Londrestik bueltan Euskal Herria borrokaren jarraitzaile egin dela nabaritu dute. Oletarrak bloga ere badauka (www.maiderunda.com), eta nahi duenak atari horretan jarraitu dezake Maiderren ibilbidea. Japoniarren artean, ordea, kirol arrakastatsua da borroka, eta kirolgunean zegoen japoniar kopuruak harritu egin zituen: “Haiek ziren gu kenduta zarata gehien ateratzen zutenak”, esan du Maitek.

Gomendatzeko esperientzia

Aho batez eta ozen esan dute Andonik eta Maitek ez dutela inoiz ahaztuko Londresen bitzitakoa. “Sekulako esperientzia izan da, edonori gomendatzeko modukoa”. Maiderren borrokaldiak ikusi dituzte bakarrik, eta saskibaloi finala, esaterako, gustura ikusiko luketeela azaldu dute, baina sarrerak lortzea ezinezkoa zen. “Maiderrek berak lortu zuen sarrera bat, domina irabazi zuelako”. Harrituta geratu dira antolakuntzarekin. “Horrelako jendetza antolatzea ez da lan erraza, eta dena primeran antolatuta zegoen”. Animatzeko gertuko norbait izateak Olinpiar Jokoak sutuago bizitzea eragiten du, baina rementeriatarrek ez daukate dudarik: “Horrelako abentura bat bizitzeak merezi du”.





Maider Unda
Borrokalaria



“*Domina irabazteak aurrera jarraitzeko ilusioa piztu dit*”

Pekingo arantza atera eta brontzeko domina eskuratu du Maider Undak Londresko Olinpiar jokoetan, 72 kiloz azpiko mailan. Finalerdietan galdu ondoren, Marzaliuk bielorusiarra menderatuta lortu zuen domina oletarrak. Lau borroka, lau aurkari, hiru garaipen, eta brontzeko domina lepotik zintzilikatuta itzuli da Maider Unda etxera. Espainiako borroka taldeak inoiz Olinpiar Jokoetan lortu duen lehen domina da Maiderrek irabazitakoa.

Pekinen bosgarren egin zenuen, baina oraingoan domina ekarri duzu etxera. Zer sentitu zenuen irabaztean?

Une horretan mila gauza batera pasatzen zaizkizu burutik, eta era berean, gauza bat ere ez da bururatzen. Blokeo moduko bat da, pozez lehertzea bezalako zerbait. Oso zaila da hitzekin azaltzea une hartan sentitu nuena. Alboan neukan jende guztia besarkatu eta haiekin ospatu nuen.

Nondik dator *Iron Maider*?

Rementeriatarren kontua izan da. Andonirena izan zen idea eta kazetari guztiak erabili dute ondoren.

Pekin ala Londres?

Pekinen dena ikusgarriagoa zen, handiagoa. Londresen xumeagoa izan da, baina familiakoak han egotea eta nire poztasuna eurekin bizitzea oso polita izan da.

Gogor entrenatu zara, eta gainera zeure kabuz. Zergatik utzi zenuen Madrilgo errendimendu altuko zentroa?

Madriren entrenatzea eta han bizitzea beste zerbait izango zela uste nuen, dena

bukolikoa izango zela alegia, baina ez nuen nik esperetakoa aurkitu. Etxean hobeto egongo nintzela pentsatu nuen, eta itzultzea erabaki nuen. Pesak egiteko aparatua daukat etxean, eta atsaldetan Gasteizera joaten naiz entrenatzera.

Luis Crespo da zure entrenatzailea. Zu beste edo gehiago poztuko zen bera ere brontzeko dominarekin...

Ni baino gehiago poztu dela uste dut. Ni baino gehiago sufritu du, eta poz handia hartu du.

Kirol mota hau ez da oso ohikoa Euskal Herrian eta are gutxiago emakumezkoetan. Nola hasi zinen borrokan?

Kasualitatez izan zen. Umea nintzela sambo praktikatzen hasi nintzen, eskolako gainerako ume gehienekin. Samboa borrokaren oso antzekoa da, baina hura laga eta borrokan sartu nintzen. Poliki-poliki hasi nintzen, eta gaur arte.

Zein dira kirol honen alderik gozoena eta gaziena?

Kontrakoa dirudien arren, borrokak ba-

dauka alde gozoa, eta gozatzen ikasi behar da. Ni genio biziko neska naiz, eta borroka irakatsi dit genio hori kontrolatzen. Alderik gaziena, dudarik gabe, lesioak dira. Baina lesioek ere badute bere alde ona, izan ere, momentu zailak gainditzeko prestatzeko balio dute.

Ogibidez artzaina zara, eta azoka askotan ibiltzen zara gazta saltzen. Ezaguna izateak ba al du abantailarik?

Laguntzen du, baina apur bat astuna egiten zait ezaguna izatearen kontua. Eguneko lehen orduetan ondo, baina jendeak lotsa galtzen duenean astuna egiten da. Dena den, badakit hau guztia pasatuko dela.

Hemendik aurrerako asmoak?

Olinpiar Jokoen ostean erretiroa hartzea zen nire asmoa, baina dominak aurrera jarraitzeko ilusioa piztu dit. Hala ere, lehenengo oporrak hartuko ditut, eta gero ez dakit zer egingo dudana. Lasaiago bizitzea nahiko nuke, beste erritmo batean.

“**Genio biziko neska naiz, eta borroka irakatsi dit genio hori kontrolatzen**”

Erretratu zaharra



1979

Sanbartolomeak amaitu diren arren, jaien arrastora dator 1979ko erretratu hau. Eulogio Astigarragak ekarri du BARRENEKO erredakziora urte hartako sanbartomeetako ferian ateratako argazki hau. Kalegoen Plazan egiten zen ganadu lehiaketa garai hartan. Amezti baserrikoek ere hartu zuten parte lehiaketan, eta eurek irabazi zuten. Gogora ditzagun argazkiko mutil gazte hauen izenak. **Ezkerretik eskumara:** Eulogio, Luis eta Tomas Astigarraga.



IV. URTEURRENA

NORA REY NOGALES

*Datorren hilabeteen 14 urte beteko dituzu,
eta pasatzen den egun bakoitzeko,
gehiago igartzen dugu zure falta.*

Maite zaitugu, Nora.

1998/10/18 - 2008/08/11

ARRIAGAN DA BERRIRO SAN ANTOLIN

Ainara Argoitia



Jai bereziak izan dituzte aurten Arriaga auzoan. Urteetan galdutzat izan duten santua berreskuratu eta prozesioan atera zuten hilaren 2an, domekan. Ikusmina handia zen. Arriagako Santi Espiritus eta Andre Maria Pietatekoa ermita bota zutenetik, askok ez zuten haren berri, eta “hunkituta” jaso zuten santuaren itzulera. Halaxe aitortu du, esate baterako, Maria Dolores Carasak –berak lagatakoa da aste honetako azaleko argazkia. 1945. urtekoa da irudia, eta Arriagako auzotarrak, ermitaren orduko jabeak, ageri dira basiliza atarian–.

Fundazio pribatu batek (Joan Martinez Karkizaokoak) eraikiarazi zuen ermita Erdi Aroan, 1514. urtean, eta 1945. urteko otsailaren 21ean, auzoko hogeita bost familiaren artean erosi zuten –Garaiko idatzietan, Adelaida Aldasoro ageri da ermitaren ordura arteko jabetzat–. Hain justu ere, urte horretako da azaleko argazkia, 1945eko apirilaren 2koa, ermitaren jabetze eginbideak egin zituztenekoa. Urteetan “auzotarren bilgune” izan zen ermita hura, baina 1973. urte bueltan eraitsi egin zuten, A-8 autobidea eraikitzeko eta 634-errepidea zabaltzeko la-

nek behartuta. “Esango nuke 1972ko urtarrilaren 16an izan zela azkeneko meza. Gogoan daukat buelta horretan izan zela, gure etxea ere, Usatorre baserria, urte hartan bota zutelako”, azaldu du Victor Usatorrek. –Ermita ondoan zegoen Usatorre baserria, eta sasoi batean erromesentzako eta gaixoentzako gelak ere izan zituzten han. Palaciota- rren ondoren, urte askoan Usatorrekoak arduratu ziren ermita buelta garbi mantentzeaz–.

Ermitez gain, hiru baserri ere bota zituzten Arriagan, 1972. urtea al- dera, A-8 autobideko eta 634 errepideko obrak zirela eta: Palacio, Al- dai eta Usatorre. “Seguru nago gaur egun balitz salbatuko luketela er- mita, azken batean ondare historikoa zelako, baina orduan inor ez zen agertu kontra eta... Gaur balitz asmatuko lukete nola egin ermita bota beharrik ez izateko”, adierazi du Manuel Iriondo *Kaxetak*.

San Antolin santua Altzolan zegoelakoan egon dira luzaro arriaga- tarrak, Iriondok berak aitortu duenez. Zabale baserriko Juan Luis Ber- garetxe lagunak behin baino gehiagotan esana zion eurak ibili zirela San Antolin ermitako gauzak kamioian Altzolara eramaten, eta halaxe

Ventura Usatorre (ezkerretik bigarrena) prozesio buruan zihoazen neska-mutikoen artean.

zen egiaz. Altolako Torrekua baserriko sotoan gorde zituzten San Antolingo ermitako balioko gauzetako batzuk. "Torrekua baserria Altolako bainuetxeko nagusia zen, eta hangoen azkeneko oinordekoak, Jose Maria Balintzategik, sotoa laga zuen, Arriagatik eramandako gauzak gordetzeko. Halaxe, San Antolin bera eta ermitako gurutze eta gainerako elementuak hantxe zeudelakoan geunden asko eta asko", zehaztu du.

Hala, orain hilabete batzuk San Antolinen bila hasi zirenean, Altolara jo zuten arriagatarrek birritan pentsatu gabe. "Altolako sakristauarekin jarri ziren harremanetan, eta hark ekarri ere egin zuen santu txiki-erdi beltz bat hona San Antolin zelakoan, baina bai zera!", bota du barreari eutsi ezinda. Itxuraz, uholde urte batean, urak hartu zuen Torrekua baserriko sotoa, eta sakristauak hango balioko gauzak hartu eta Altolako elizara eraman zituen, babesera. Gauza haien artean zegoen orain berriki Arriagara eraman duen santua ere.

Baina ez. Arriagan ondo gogoan zuten zelakoa zen euren santua. Manuel Iriondoren emaztea, esaterako, berehala jabetu zen santu txiki hura ez zela San Antolin. "San Antolinek obispo jantziak zituen; kapa, kapela eta enparauak. Ezin zen hura izan. Gure andreak albumean gordeta zeukan hemen prozesioa egiten zen sasoiko argazki bat, eta hari esker argitu zen Altolatik ekarritakoa ez zela San Antolin". Eta bila jarraitu behar. Peskizan jarraitu zuten, batari eta besteari galdezka, eta Pello Arrieta historialariengana iritsi ziren hala. "Pellok eta beste batzuek esan zuten Arriaga baserrira ere eraman zituztela bere sasoiaren ermitako traste batzuk, eta itxuraz, San Antolin ere han gorde zuten", azaldu du Iriondok.

Halaxe zen. Araztegia egiteko bota zuten Arriaga baserria, eta bota aurretxoan Pello Arrieta eta Jesus Bilbao zena ibili ziren baserriko ganbaran zeuden balioko gauzak batzen. "Balio zuten gauzak Elgoibarko parrokiara ekarri genituen, tartean San Antolin bera", argitu du Arrietak. Eskaiolaz egindako santua dela azaldu digu jarraian, "nahikoa berria". Berezia da San Antolinen irudia, eta baditu ornamentu jakin batzuk ere. Berez, lepoan laban batekin irudikatzen dute, erropa jakin batzuekin, baina Arriagako zaindariak lepoan izan ordez eskuan dauka labana. "Benantzio [parrokoa] eta biok ibili ginen parrokiako ganbaran



santuaren bila, eta San Antolin topatu genuenean ikusi genuen falta zuela labana, baina lepoan han zuela zauria. Lokarri antzeko batekin eskura lotu zioten gero labana", gehitu du.

San Antolinen irudi hori da prozesioan atera zutena. Marta Ferrero elgoibartarrak zaharberritu du santuaren irudia, eta San Antolingo kaperan egin diote lekua, XVI. mendeko beste San Antolin txikiago baten ondoan. Kaperan bertan, garai bateko ermitako beste irudi batzuk ere gordetzen dituzte, tartean gurutze bat. "Donostian berritutako gurutzea da. Bellosok eraman zuen Donostiara bere garaian", adierazi du Arrietak. Erretaulako beste zenbait elementu ere badira, baina estandartarik ez. "Dirutza handia ordaindu zuten estandartea, baina baztarren batean usteldu edo sitsak jango zuen", adierazi du penaz Maria Dolores Carasak. Sarri eraman zuten berak eta bere aita zenak, Burgosko Unibertsitateko katedradun Pedro Carasa Arroyok, estandartea, "ohore handiz".

Irailaren 2a, egun handia

Ermitearen bueltan, jai handia egin ohi zuten Arriagan irailaren 2an. Manuel Iriondok gogoan iltzatuta dauzka ermitaraino egin ohi zituzten kalejirak, "zezen eta guztikoak". Intxaurrendoz inguratuta zegoen San Antolin ermita, eta hantxe bueltan egiten zuten erromeria. "Elgoibartik etortzen ziren musikoak, bi anaia. *Jangoerango* orkestra esaten genien guk. Batek soinua jotzen zuen, eta besteak batera. Ermita buelta dena egurrekin hartu eta zezen plaza ere izaten zen, zekorketetarako. Gogoan daukat behin eliza barrura ere sartu zela zezena, eta sekulako iskanbila sortu zela, pekatua zela eta ez zela", gogoratu du. Elgoibartik eta Mendarotik jende asko joaten zen San Antolingo ermitara, eta baita Altzola auzotik ere. Sasoi batean hamahiru ostatu ere izan ziren Altzolan, eta han ostatu hartutakoek eta bainuetxean lanean zebiltzan neska gazteek ere ez zuten hutsik egiten. "Hango gazte jendea! Gizonetakoek ordaindu egiten zuten dantzan egiteagatik, eta han ibiltzen ziren bainuetxeko nesken usainean", gehitu du.

Ermitea bera eta beranduago Usatorre baserrian zabaldu zuten taberna izan ziren urte askoan arriagatarren bilgune, eta azken urteotan, handik gertu, gaurko Usatorre taberna ondoan, batzen dira, San Antolinen omenez. Aurten, San Antolin eta guzti.



Aurtengo prozesioko une bat. San Antolin berritua ageri da argazkian.



1. Arriagako Santi Espiritus eta Andre Maria Pietatekoa ermita. 2. Usatorre baserria. 3. Arriaga (araztegia egiteko bota zuten). 4. Palacio baserria. 5. Aldai baserria. A-8 autobidea egiteko bota zituzten Aldai eta Palacio, eta 634 errepidea zabaltzeko ermita eta Usatorre baserria.

Eibarko Jabetza erregistroko 2008ko agirietan honako hauek agertzen dira San Antolingo ermitaren azkeneko jabetzat:

JOSE MARAI ETXABE IZAGIRRE / LEONA ARIZNABARRETA AGIRREBEÑA
 JACINTO BERGARETXE IZAGIRRE / TOMASA ARREGI
 MANUEL JUARITI JUARRO
 JUAN BAUTISTA GALARRAGA / ESTAQUIA SAN MIGUEL
 MIGUEL JUARISTI URANGA / TOMASA SAN MARTIN
 TOMAS ANSOLA ARANBERRI / KARMEN JUARISTI
 FRANCISCO URIA OÑEDERRA / LUCIA BASURTO
 JOSE EIZAGIRRE LEIARISTI / ANGELA ARRIZABALAGA
 SEBASTIAN ARRIETA SARASUA
 ISIDRO ASKASIBAR ETXABE / MARIA SAN MARTIN
 AQUILINO BARRENETXEA IRIONDO / DOLORES LANCA
 TOMAS IRIONDO BARRENETXEA / JOSEFA GURRUTXAGA
 VICTOR USATORRE EGIGUREN / TOMASA ERRASTI

TEODORO BARRENETXEA ARRILLAGA / MARIA GARATE
 VICTOR AROZENA ETXABE
 SANTIAGO AGIRREGOMEZKORTA ARREGI / BERTA ARREGI
 ESTEBAN ETXANIZ ETXABE
 PEDRO ETXABE AZPEITIA / ELOGIO MUGERTZA
 TOMAS ETXABE SAN PEDRO / MARIA JOSEFA ETXANIZ
 MARCOS ARREGI IRIONDO
 NICOLAS SAN MARTIN ARRIETA / MARIA ARANBERRI
 NICOLAS ARRIETA SARASUA / JACINTA BERGARETXE
 JOSE MARIA MUGICA Y COMPAÑIA S.R.C.
 DOMINICA USATORRE ERRASTI
 IGNACIO BARRENETXEA ZUBIAURRE / MARIA DOLORES CARASA



Lehenengo lerroan: Juanito Iriondo (kapela bereziduna), Joseba Etxabe eta Juanito Larrañaga. Bigarren planoan, kamarari begira: Sebastian Etxabe. Eskumako argazkian, Maria Dolores Carasa, estandartarekin.





PINTURAK
KONPONKETAK
AZARBUZUAK AZKARBUZUAK CARPINTERIA

Pedro Pérez Beristain
Xibellon Kalea 2 botea 3
943 74 36 52 - 639 76 09 19

FATXADAK ETA KOMUNITATEAK - BERRIZTAKETAK - ETXeko KONPONKETAK



★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama



Uztaileko irabazlea:
BEGOÑA ALBERDI

Abuztuko saria:
3 ORRAZKERA HIDRATAZIOAREKIN

Idama



Abuztuko irabazlea
ANTON AZPIAZU

Iraileko saria:
SOLARIUM-EKO BONO

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik) Tel.: 943 74 40 26



CURSO 2012 • 2013 IKASTURTEA
Matrikula zabalik • Matricula abierta
UDAL EUSKALTEGIAK



DEBABE
Udal Euskaltegia
Kalebarren plaza 2
ELGOIBAR
943 742 731
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

2012-2013 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Matrikula zabalik • Matricula abierta

Izena emateko epea irailaren 28ra arte
Plazo de inscripción hasta el 28 de septiembre

♥ ♥ ♥ ♥ ♥ ♥ ♥

Aurrez aurrekoak, 2, 3 edo 4 egun astean
Autoikaskuntza internet bidez

Ikastaro bereziak
Enpresak
AISA (Etorkinak)
Merkataria eta ostalaritza

Azterketetarako prestakuntza
Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)
HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak
EGA

16 urtetik gorakoentzat
DIRU-LAGUNTZAK ETA BEKAK

♥ ♥ ♥ ♥ ♥ ♥ ♥

Ordutegia:
09:00 - 13:00
15:30 - 19:30

San Bartolome jaiak kalitatezkoak izan direla eta giro onean joan direla nabarmendu du Udalak

Maila handiko jaiak izan direla adierazi du Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak

San Bartolome jaien balorazioa egin dute Udal agintariek, eta besteak beste, jaietan izan den giro onari eta herritarren inplikazioari esker “maila handiko jaiak” izan direla nabarmendu dute. Azken batean, San Bartolome jaiak kalitatezkoak izan direla eta giro onean joan direla nabarmendu du Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak. Ildo berean, jai “nahiko lasaiak” izan direla nabarmendu du Udaltzaingoak. Puntu beltz bat aipatzekotan, Baserritarren Egunean, gauetz, lapurreta asko izan zirela aipatu du Jabier Oñederra udaltzainburuak. Gau horretan galdutako gauza asko jaso zituzten Udaltzaingoan, gehienak sakelako telefonoak eta diru-zorroak. Era horretako 29 objektu jaso zituzten orotara (jaz hiru jaso zituzten). Lapurrek diru zorro asko ostu zituzten, eta balio handiko gauzak hartu ostean diru-zorroak bota. Horiek dira Udaltzaingoan bukatu zute-

nak. Dokumentazioa barruan zuten zorroak, 23 guztira, jabeei itzuli zizkieten.

Sokamuturraren arrakasta

Alfredo Etxeberriak esandakoaren arabera, jaietako ekitaldirik “herrikoiena eta maitatuena” sokamuturra izan da beste behin ere. Ikuste eta korrikalari asko izan direla eta ezbeharrik egon ez dela nabarmendu dute arduradunek. Honi lotuta, gogorazi dute 16 urtetik beherako gazte txoek erabat debekatuta dutela sokamuturraren ibilbidean sartzea.

Jai guneetatik gertu bizi diren herritarrek jasaten dituzten eragozpenak ere go-goan izan ditu Etxeberriak.

Azkenik, Udal agintariek eskerrak eman dizkiete herriko elkarte eta kolektiboiei, horiek gabe ezingo luketeelako Elgoibarko jaien egitaraua behar bezala bete. “Elgoibartarrok gara jaiei bizitasuna ematen diegunak. Lan eginez, kolabora-



tuz, inplikatur, eta gozatur, errespetuz eta kontsiderazioz, bizikidetzeta hobetzen jarraitu behar dugu Elgoibarko herriari jai zoriontsuak eskaintzeko”, esan du Alfredo Etxeberriak.

Aitor Asenjok irabazi du Zarauzko auresku eta soinu zahar txapelketa mutiletan



Nagusien mailako auresku eta soinu zahar txapelketa jokatu zuten irailaren 1ean Zarautzen, eta mutiletan Aitor Asenjo elgoibartarrak jantzi zuen txapela. Harekin batera, Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari Taldeko eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako hiru neskek ere hartu zuten parte, eta ondorengoak izan ziren haien lorpenak: Andrea Arregi (laugarren), Arantxa Ferreiro (bosgarren) eta Miren Astigarraga (zazpigarren). Nagusien mailako hurrengo txapelketa Euskadiko txapelketa izango da. Azaroaren 18an jokatuko dute sailkapen kanporaketa, eta azaroaren 24an izango da finala. Finalerako zortzi dantzari onenak sailkatuko dira.

Helduentzako antzerki ikastaroak

Taupada antzerki taldeak helduentzako antzerki ikastaroak antolatatu ditu, irailetik ekainera arte. Interesatuak ondorengo telefonoetan eman dezakete izena: 653 013 813 (Larra) edo 656 416 677 (Edurne).

Euskara ikasteko laguntzak

Udaleko Euskara Batzordeak, herriko euskaltegiekin eta ikastetxeekin elkarlanean, gurasoentzako euskara ikastaroak antolatatu ditu, euskararen transmisioan eragiteko. 0-12 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoek ikastaroaren matrikula erdia bakarrik ordainduko dute, eta kurtsoan zehar asistentzia eta aprobetxamendu ona izanez gero, beka ere jasotzeko aukera izango dute. Informazio gehiagorako 943 744366 telefonora deitu daiteke.

Zine ziklo berezia antolatu du Ongarrik irailerako, Donostiako zinemaldiaren harira

Lau film emango dituzte irailaren 20tik urriaren 1era bitartean

Irailaren 22an hasiko da Donostiako zinemaldia, eta horren harira, ziklo berezia antolatu du Ongarri zineklubak. Irailaren 20tik urriaren 1era bitartean, munduko hainbat zinemalditan sariren bat eskuratutako filmak eskainiko dituzte Herriko Antzokian. Beheko taulan daukazue filmen egutegi eta ordutegiak.



Y AHORA A DÓNDE VAMOS?

Europako film onenaren publikoaren saria eman zioten iaz Donostiako zinemaldian.

20 eguena, 21:30

21 barixakua, 22:15

EL SKYLAB

Epaimahaiaren sari nagusia jaso zuen iaz Donostiako zinemaldian.

22 zapatua, 19:00/22:15

23 domeka, 19:00

24 astelehena, 21:30

POLLO CON CIRUELAS

Sail ofizialean eman zuten iaz, Veneziako zinemaldian.

27 eguena, 21:30

28 barixakua, 22:15

PROFESOR LAZHAR

Torontoko zinemaldian, ikusleen film onenaren saria jaso zuen.

29 zapatua, 19:00/22:15

30 domeka, 19:00

1 astelehena, 21:30

Hiru kontzertu antolatu ditu Sinuosek, Sotoko Hotsak egitasmoaren barruan



Irailaren 20an hasiko da Sotoko Hotsak musika emanaldia, eta aurten hiru kontzertu antolatu ditu Sinuosek. Layo Raser taldeak emango du lehenengo kontzertua datorren eguenean. Bidasoatarrek punk instrumental antzeko musika egiten dute. Elena, Jon eta Fortun hirukoteak *Europa* izeneko lana kaleratu dute aurten, eta besteak beste, disko horretako lanak aurkeztuko dituzte. Irailaren 21ean Royal Canal taldearen txanda izango da. Iñigo Cabezafuego iruindarrak sortutako taldea da, eta folk, rock eta soul estiloak uztartzen ditu. Azkenik, Jupiter Jon taldeak eskainiko du kontzertua, hilaren 22an. Irungo laukoteak 2011n kaleratu zuen estreinako lana *Pleistozenoko astelehenak* izenburupean, eta rock doinuak dira nagusi. Kontzertuak 23:00etan hasiko dira, Kultur Etxeko sotoan eta sarrerak hiru euroko prezioa izango du.

Hip hop ikastaroak Olaizaga kirolegian

Ikasturte berria hastearekin batera, martxan dira berriro ere hip hop ikastaroak. Ume eta gazteentzako ikastaroak jarri dituzte martxan, eta nahi duenak badauka oraindik izena emateko aukera. Interesatuak ondorengo telefonoan eskuratu dezakete informazio gehiago: 679 237 611 (Maria)

Irailan doan eskainiko dute dantza latinoen ikastaroa

Elgoibarko Udal Kirol Patroinatua jakinarazi duenez, dantza latinoen ikastaroan parte hartu nahi dutenek doan probatzeko aukera izango dute irailan. Momentuz, bi ordutegi daude aukeran: barixakuetan, 15:00etatik 17:00etara, eta, astelehen eta eguaztenetan, 20:30etik 21:30era. Interesatuak Olaizaga kirolegian eman dezakete izena.

Hilaren 22an jokatu da Gau Krosa, eta horren bueltan atletismoaren jaia antolatu du Mintxeta Atletismo Taldeak

Lekuederren jarriko duten karpan afaltzen emango dute hilaren 21ean eta 22an

Hirugarren urtez jarraian Gau Krosa antolatu du Elgoibarko Mintxeta Atletismo Taldeak irailaren 22rako. 20:00etan hasiko da krosa, eta antxixikariek zortzi kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, Kalegoen plazan hasita. Urteik urtera ospea hartzen ari den lasterketa da honako hau, eta antolatzailleek aurreratu dute aurten 400 lagunentzako dortsalak izango direla. Interesatuek www.kirolprobak.com webgunean eman dezakete izena aurrez, edota hilaren 21ean bertan, 18:30etik 20:00ak bitartean espreski horretarako jarriko duten mahaiari. Gau Krosaren egunerako, hilaren 22rako, 15 urtera arteko gazteentzako lasterketa ere antolatu du aurten Mintxeta Atletismo Taldekoek. Gaztetxoek gurasoekin hartu beharko dute parte, eta lasterketa amaitutakoan opari bana jasoko dute guztiek.

Aipagarria da, iaz bezala, bi eguneko jaia antolatu dutela Gau Krosaren bueltan. Hona hemen egitarau osoa:

OSTIRALA, HILAK 21

- 18:30ean: Karparen irekiera
- 18:30-20:00: Dortsala eta txipa jasotzeko eta izena emateko tartea.
- 21:00: Afaria. Menua: Eusko-Labeldun sailheskia
- 22:30ean: Bertso saioa. Ondoren, erromeria

LARUNBATA, HILAK 22


- 18:30ean: Haurren lasterketa. 15 urtera arteko haurrek parte hartu ahal izango dute. Haurrek gurasoekin parte hartu beharko dute. Lasterketa bukatutakoan, opariak banatuko dizkiete parte-hartzaile guztiei.
- 20:00: Gau krosa. Lasterketa bukatutakoan, opariak zozketatuko dituzte, sari banaketa egitearekin batera.
- 21:00: Afaria. Menua: Eusko-Labeldun sailheskia, patatak, entsalada, flana eta kafea. 11 euroan salduko dituzte txarte-



lak, baina prezio horretan ez da edaririk sartuko. Korrikalariei 2 euroko deskontua egingo diete.

- 22:00: Melissa and The Jacks taldearen kontzertua (U2, Police, Sting, Bryan Adams, Peter Gabriel...taldeen bertsioak egiten dituzte). Ondoren, erromeria.

Bihar jokatu da Idotorbeko Rolleski igoera



Bihar, irailaren 15ean, jokatu da Idotorbeko Rolleski igoera. 11:30ean irtengo dira, Idotorbera igotzeko aldapa hasten den bidegurutzean, Santa Klaran. Izenematea Internetez edo Kalegoen plazan egin ahal izango da egunean bertan, donan. Informazio gehiago nahi izanez gero: pirukeriak.blogspot.com.es. Idotorbeko aldapak igotzearekin nahikoa ez dutenentzat entrenamendu saioa ere antolatu dute antolatzailleek. Eta ez edonolako, Mariputzuraino igotzea proposatu diete-eta rolleski zaleei, Euskal Herriko Rolleski Ligako jardunaldi berri bat ate jokatuko dagoela-eta. Hortaz, hala nahi duten kirolariek, IMHrako bidegurutzean agertu beharko dute, 8:30ean.

Mendiko argazkilaritza tailerra, hilaren 22-23rako

Morkaikok antolatuta, mendiko argazkilaritzari buruzko tailerra emango du Santiago Yaniz argazkilariak Elgoibarren, hilaren 22an eta 23an. Begiratzeko modua, argazkiak ateratzeko era pertsonala lortzeko bideak, mendian argazkiak egiteko gakoak, eta, batez ere, irudi finkoetan zerk eta zergatik funtzionatzen duen landuko dute. Era berean, oinarrizko tekniken errepaso ere egingo dute, eta praktika moderno eta erakargarrienen berri ere jasoko dute. Interesatuek irailaren 18ra arteko epea dute izena emateko. Morkaiko bazkide direnek 70 euro ordaindu beharko dute matrikula, eta gainerakoek ehun (Kutxa 2101 0036 69 0000380550). Taldea gehienez hogei lagunekoa izango da. Informazio gehiagorako: (www.morkaiko.net).

Indartsu hasi du iraila Maite Maiorak, Lezamako Mugetan eta Arno Trail Sprint Race mendi lasterketak irabazita

Abuztuan laugarren egin zuen Otañesen, Espainiako Kopako azkeneko proban

Sasoiko hasi du ikasturtea Maite Maiorak. Irailaren 2an Lezamako Mugetatik mendi lasterketa irabazi zuen, eta iragan domekan Arno Trail Sprint Race mendi lasterketa. 263 korrikalarik parte hartu zuten Lezamako Mugetatik mendi lasterketaren zazpigarren ekitaldian, eta 218k bukatu zuten. 28 kilometroko ibilbidea osatu zuten, iaz baino hiru kilometro luzeagoa, eta Maiorak bi ordu eta hogeita hemezortzi minutuan bukatu zuen bere egitekoa. Abuztuan Otañesen (Kantabria) jokaturako Espainiako Kopako azkeneko proban laugarren egitetik zetorren Maiora, sasoi betean.

Joan zen domekan ere podiuma zapaldu zuen mendarorak Kalbarixon, Arno Trail Sprint Race mendi lasterketan. Kalbarixon hasi eta 7,56 kilometro egin behar zituzten antxitxika, eta tartean, Arno igo —Antolatzaileek ibilbidea aldatu dute aurten, eta gogorragoa egin dute—. Guztira, 64 lagunek parte hartu zuten, eta emakumezkoetan Maiorak ez zuen aurkaririk izan, Arnoko gainean hiru minutuko aldea atera ziolako bigarren sailkatuari, Leire Fernandez errenteriarri. Sailkapen orokorrean, hamaseigarren egin zuen mendarorak. Pilar Arriola elgoibartarra ere igo zen podiumera, beteranoen sailean.

Gizonezkoetan, bi mendaroar sartu ziren lehenengo hamarren artean. Gotzon Zulaika izan zen gure ordezkarietan azkarrena, 44:08ko denborarekin, eta Iñaki Gil bederatzigarren sailkatu zen, 46:54ko denborarekin.



Maite Maiora, Kalbarixora bidean, joan zen domekan.

Gotzon Zulaika mendarorak hirugarren egin du Euskadiko Lokotx biltze Txapelketan

Santantetan Gipuzkoako Lokotx batze Txapelketa irabazita, hilaren lehenengoan Donostian jokatu zen Euskadiko Txapelketarako sailkatu zen Gotzon Zulaika, eta hirugarren egin zuen mendarorak, Eneko Garmendia eta Fernando Etxegarairen atzetik. Gipuzkoako txapela jantzi izanak Zazpi Herrialdeetako Txapelketarako txartela ere eman zion Zulaikari, eta joan zen zapatuan Getxon lehiatu zen, Gipuzkoa ordezkatzeko. Herri kiroletako modalitate guztiak jokatu ziren: kaskara batzea, txinga eroatea, sokatira, lasto altxatzea, ingudea, aizkora, trontza, eta harri jasotzea tartean, eta orotara, hirugarren sailkatu zen Gipuzkoako taldea. Bizkaiko taldea gailendu zen Getxon.



Gotzon Zulaika, Donostiako Trinitate plazan, Euskadiko txapelketan.

Kurtzebarri mendira irteera antolatu dute Elgoibar Ikastolako ikasleek

50 urte, 50 mendi egitasmoaren barruan, Kurtzebarri mendira irteera antolatu dute Elgoibar Ikastolako ikasleek [zehatzago izateko, 1994an jaiotako ikasleek], hilaren 16rako. Kurtzebarrik 1.113 metro ditu (www.mendikat.net). Antolatzaileek aurreratu dutenez ikastolatik irtingo dira, 9:00etan.

Bazkide kanpaina hasi du C.D. Debabarrena areto futbol taldeak

Bazkideak behar ditu C.D. Debabarrena areto futbol taldeak. Iaz, 200 bazkidegara iristeko erronka jarri zuten, eta aurten 300era iritsi nahiko lukete. Bazkide egiten den bakoitzak opari bat jasoko du, eta deskontuetarako aukera izango du. Interesatuek honako helbide elektronikora idatzita eman dezakete izena: debabarrena@debabarrenafns.org.

LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna, orduka, ospitalean... ☎ **602 371 443**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna, orduka, ospitalean... ☎ **634 781 954**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna, orduka, ospitalean... ☎ **618 134 615**
- Elgoibarko mutila, baso tasatzaile ofiziala, baso aholkularitzarako eskaintzen da. ☎ **607 885 609**
- Neska umeak eta nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **632 619 997**
- Magisteritza Lizentziatutako neska LHko klase partikularrak ematen ditu. ☎ **666 329 728**
- LHko eta euskarazko klaseak ematen ditu. Esperientzia daukat. ☎ **697 322 306**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Adin eta maila guztiak. Azterketa ofizioletarako prestakuntza. Talde txikiak. ☎ **680 858 550**
- Mutila, lan bila. ☎ **688 812 845 / 943 257 671**
- Emakumea, lan bila: umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **681 065 683**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut etxetik. ☎ **943 744 062 / 680 319 002**
- Mutila nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. ☎ **686 077 316**

- Alemanierako klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle truke eta azterketen prestaketa EOI. ☎ **670 793 312**
- LH eta DBHko klase partikularrak ematen dira. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Emakumea garbiketarako egin edo nagusiak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. ☎ **699 609 190**
- Emakume langilea, konfiantzazkoa eta arduratsua umeak zaintzeko prest. Arratsaldez. Erreferentzia onak. ☎ **626 330 003**
- Emakumea lan bila: umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. ☎ **646 821 678**

ESKAITZA

- Debako Kresala hoteleko harreraren lan egiteko pertsona behar da. Interesatuak bidali Cva ondorengo helbidera: deba@aislahoteles.com
- Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko pertsona behar da. ☎ **659 287 122 (Arratsaldez deitu)**

ETXEBIZITZAK

- Pisua salgai Elgoibarren. Hiru logela, egongela, koina, sukaldea, ganbara. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. ☎ **688 658 183**

- Hiru logelako etxea salgai Basarten. Garajea eta trastelekua. Berria, prezio ezinhobean. Oso argitsua. Alokatzeko aukera, ondoren erosteko. ☎ **675 676 129**
- Pisu txikia hartuko nuke alokairuan. ☎ **679 237 611**
- Hiru logelatako pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **677 077 786**
- Emakume arduratsuak pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **943 530 631 / 663 510 520**

GARAJEAK

- Garaje itxia alokairuan, Jausoro plazan. Udaletxetik gertu. ☎ **672 422 237**
- Garajea alokairuan, Jausoro plazan. Ate automatikoarekin. ☎ **600 587 328**

KINTOAK

- 1979an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute irailaren 22an, Txarriduna jatetxean. Interesatuak 50 euro sartu behar dituzte Caja Ruraleko kontu honetan: 3008 018281 2558366510. Izena emateko azken eguna, irailak 17.



CARMEN ORTUONDO AREITOURTENA

2012ko irailaren 10ean hil zen, 82 urte zituela.

*Ez zaitugu gehiago ikusiko gure artean,
baina betirako egongo zara gure oroimenean.*

Zure lagunak



ESKERTZA

CARMEN ORTUONDO AREITOURTENA

*Ez dira betiko garai onenak,
azken finean gizaki hutsak gara
ez dakigu non dagoen hoberena,
baina zaude ziur ezin izango
zaitugula ahaztu inoiz.*

Etxekoak

2012ko irailaren 10ean hil zen, 82 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





• Zorionak **Naiara**, abuztuaren 17an 2 urte egin zenituelako. Zure guraso eta Elgoibarko eta Andoaingo familien partez.



• Zorionak, **lare**, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat, aitaxo, amatxo eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Izaro**, uztailean 6 urte egin zenituelako. Patxo pila bat, batez ere, Noraren partez.



• Zorionak, **Egoitz**, abuztuaren 20an zure eguna izan zelako. Oso ondo pasa genuen. Etxekoena eta, bereziki, Uxueren partez.



• Zorionak, **Saretxo**, zapatuan zure eguna izan zelako. 3 urterekin horrenbeste jakin daiteke? Muxuak, etxekoena partez, matraka!



• Zorionak, **amama Arantxa**, irailaren 5ean 83 urte egin zenituelako. Muxu handi bat, Aitor eta Mikelen partez.



• Zorionak, **Julen**, igandean 5 urte egin zenituelako. Ondo pasa zure egunean. Muxu handi bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Mikel**, hilaren 8an 4 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Ongi-etorri, **Anette Izarra Agirregomezkorta**. Zure etorrerak zorionez bete gaitu. Laztan handi bat, familia osoaren partez.



• Zorionak, **Enaitz**, hilaren 5ean 2 urte handi egin zenituelako. Oso ondo pasatu genuen! Patxo bat, etxekoena eta lagunena partez.



• Zorionak, **Ihintza**, 7 urte bete dituzulako. Muxuak, etxekoena eta, bereziki, Aioraren partez.



• Zorionak, **Janire!** Oso ondo pasatu genuen zure egunean, hilaren 4an. Neska handia zara, 9 urterekin.



• Zorionak, **printzesa**, zure laugarren urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoena partez, eta, bereziki, Nagorenen partez.



• Zorionak, **Markel**, igandean 6 urte potolo egingo dituzulako. Patxo handi bat, Endikaren partez.



• Zorionak, **June mai-ttia**, bihar zure laugarren urtebetetzea delako. Ondo pasatuko dugu! Patxo goxo bat, Malenen partez.



• Zorionak, **Ihintza**. Ilda 8 urte! Jarraitu zaren bezalakoa izaten, eta zortzi muxu potolo guztien partez, bereziki Oinatzen partez.



• Zorionak, **Erik**, gaur 3 urte egin dituzulako. Etxekoena partez, muxu bat.



• Zorionak, **Ihart**, igandean 3 urte egin zenituelako. Muxu bat, familia osoaren partez.



• Zorionak, **Ane**, asteazkenean 6 urte beteko dituz! Muxu handi bat familiakoen, eta, bereziki, zure ahizpa Noraren partez.



• Zorionak, **Alora**, dagoeneko 3 urte. Patxo handi bat familiakoen, eta, batez ere, Igorren partez.



• Zorionak, **Udane**, igandean 6 urte beteko dituzulako. Etxeko guztien partez, eta bereziki, Goiatzen partez.




• Zorionak, **Iratxe**, 6 urte bete dituzulako Gurasoen eta ahizpa Saioren partez.



• Zorionak, **Manolo eta osaba Luis**, hilaren 6an zuen urtebetetze eguna izan zelako. Familiakoen eta lagunena partez, bereziki zuen iloba Jose Miguelen partez.



• A ze ondo pasatu genuen zuen laugarren eta berrogeigarren urtebetetze egunean. Zorionak, **Miren eta Xabier**.



• Zorionak, **Befiat eta Maialen**, atzo 5 eta 7 urte egin zenituztelako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Mikel, bi-txito**, abuztuaren 10ean urte bat egin zenituelako. Etxekoena, eta bereziki, amama Pepitaren partez.



• Zorionak, **Gorane**, irailaren 9an 10 urte egin zenituelako. Muxu bat, etxekoena, eta bereziki, Aitorren partez.



• Zorionak, **bikote**, 6 urte egin dituzulako. Familiaren partez, eta bereziki, Uxue, Saiola eta Ibonen partez.



• Zorionak, **June**, zure anaia Oier jaio delako. Muxu bana, etxekoena partez.

15 zapatua

Kirola

11:30 Rolleski igoera

Santa Klarako bidegurutzetik Idotorbera igoko dira.

16 domeka

Irteera

9:00 Kurtzebarria irteera

Ikastolak antolatuta, 50 urte, 50 mendi egitasmoaren barruan.

Irteera

10:00 Dolmenen ibilbidea

Arbasoen Deia egitasmoaren barruan, Debegesak antolatuta. Karakateko aparkalekuan elkartuko dira. Izena emateko, 943 19 11 72 / 695 78 36 56 telefonoetan.

20 eguna

Musika

22:30 Sotoko hotsak

Sinuosek antolatuta, Layo Raser taldearen kontzertua, Kultur Etxeko sotoan.

21 barixakua

Atletismoa

18:30 Atletismoaren festa

Mintxeta atletismo taldeak antolatuta, musika eta afora, Lekuederren.

Aisialdia


17:30 Kiribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kultur Etxe aurrean.

Musika


22:30 Sotoko hotsak

Sinuosek antolatuta, Royal Canal taldearen kontzertua, Kultur Etxeko sotoan.



Bazkide izateko epea zabalik!
Irailetik abuzturako kuota: 45€.
 Familia ugariak
 %30eko deskontua. Informazio
 gehiago Ludotekan.

Gaztelekua zabalik berriro:
2000. urtean jaiotakoek
Gaztelekuko ateak zabalik izango
 dituzte hemendik aurrera.
 Zerbitzuaren berri, 943 743 228
 telefono zenbakian.



OKINDEGIA
 16 domeka FOTERO

BOTIKA ORDUTEGIAK
 9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez	Gauetz	Fernandez
9:00 - 22:00	22:00 - 9:00	Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142
14 Yudego	Yudego	
15 Ibañez	Garitaonandia	
Goizez: Garitaonan.		
16 Ibañez	Garitaonandia	Ibañez
17 Barrenetxea	Barrenetxea	Rekalde, 1 (Soraluze) Tel: 943 751 638
18 Ibañez	Barrenetxea	
19 Garitaonandia	Garitaonandia	Zabaleta
20 Etxeberria	Etxeberria	Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

ZINEA

«¿Y ahora a dónde vamos?»

Ongarri zinekluba
 20, eguna: 21:30
 21, barixakua: 22:15

Zuzendaria: Nadine Labaki. Frantzia, Líbano, Italia eta Egipto, 2011. Iraupena: 102 min. Generoa: Komedia dramatikoa. Aktoreak: Claude Bazz Mossawbaa, Layla Hakim. Beltzez jantzitako emakume talde bat hilerrira doa, bakoitza bere senideen argazkiekin. Zentzurik gabeko guda baten ondorioa kontatzen du filmak. Hilerrira iristean, emakume taldea bi multzotan bereiztuko da: musulmanak eta kristauak.

ESKERTZA

FELIX AYESTA ALBIZU

2012ko uztailaren 28an hil zen, 82 urte zituela.
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




Matrikulazio epea zabalik
irailaren 12tik 19ra

Elgoibarko Haurreskola
943 742 141



Haurreskolak

www.haurreskolak.net



elgoibar ikastola

Konfiantzan IKASTOLA
HH 0 (2012an jaioak)
azarotik otsailera hasteko
matrikula zabalik
irailaren 17tik 28ra

Ikastola ezagutzeko
aurkezpen bilera
irailaren 17an
19:00etan

SAIOAK:

KIRIBIL

IRAILAK 21: 17:30EAN KALEBARREN PLAZAN

GAIA: ELIKAGAIAK

IRAILAK 28: 17:30EAN KULTUR ETXEKO SOTOAN:

IXABEL MILLET ipuin kontalaria

URRIAK 5: 17:30EAN ERROSARIO KALEAN

GAIA: EUSKAL MITOLOGIA




Laguntzaileak



ATXUTXIAMAIKAKO UDAKO ARGAZKI ERAKUSKETA

Irailaren 20tik 23ra
Kultur Etxeko sotoan



ORDUTEGIA :
Osteguna eta Ostirala
17:00 –19:00

larunbata eta igandea
12:00 –14:00/17:00 –19:00